

Ikasteko eskubidearekin, ikasle presoak klasera!

Hezkuntza eskubidearen oinarriko irizpideak Jende Eskubideen Aitorpen Unibertsalean agertzen dira: *õPertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarriko ikasketei dagokienez behintzat í ö*

Aitorpen Unibertsalak hasitako ibilbideari jarraituz, Europako hainbat legek jaso dute hezkuntza eskubidea, Frantziako eta Espainiako Konstituzioek barne.

Errealitatean, aldiz, euskal preso politiko guztiek ezin dute Euskal Herriko unibertsitate publikoetan ikasi. Izan ere, Espainiako espetxeetan dauden presoek EHU ikastea galarazi diete eta Frantziako espetxeetan hainbat preso ez dute izena eman, ikasteko beka ukatzen dietelako. Unibertsitatean ez, baina Estatu bietan preso dauden hainbat ikasle ertainetako ikasketak egiten ari dira hemengo ikastetxeetan.

Nork bere gaitasunak garatzeko bide bat da hezkuntza, kulturari eta jendarteari zabalduetako leihatila bat, etorkizunean heziketa hobea izateko aukera bat... Hori guztia ez dator bat Madrilen eta Parisen martxan jarri duten presoak suntsitzea xede duen espetxe politikarekin.

Hezkuntza debekua euskal presoak bakartzeko politikan kokatzen da: urruneko espetxeetara eramatea, bertan isolatzea, lagunak bisitak oztopatzea, lege edo osasun arreta egokirik ez izatea í Sakabanaketak euskal preso politikoei urruntze fisiko, afektibo eta soziala ekarri die.

Horregatik, espetxe politika injustu horien gainera, euskal presoek hemengo ikastetxeetan, EHU barne, kalitateko hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatu behar zaie.

2003 urtean kaleratu zituzten ikasle presoak EHUtik, eta oraindik ez da lortu beharreko hitzarmena Espainiako espetxeetan dauden presoek bertan ikas dezaten. Horregatik, EHU eta Lakuako agintariei hezkuntza eskubidea gauzatzea eskatzen diegu: edozein espetxetan dauden euskal preso guztiei, doan ikasteko eskubidea bermatzea, hemengo ikastetxeetan eta euskaraz.

Antzineko mugarrak baztertu eta hitzetatik ekintzetara igarotzeko unea da. Urteotan, agintariek agertu duten hezkuntzaren aldeko diskurtsoa praktikara ekartzeko unea, hots, preso dauden ikasleak Euskal Herriko ikastetxeetara ekartzeko unea.

Guzti honegatik, maiatzaren 30ean Uribe Kostako herrietan õIkasteko eskubidearekin, ikasle presoak klasera!ö lelopean deituko diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen diogu herritar orori.

2014.V.23
Sinatzaileak

ELA, LAB, STEE-EILAS, Ikasle Abertzaleak, Ernai, Etxerat